

Pastorala Gotainen



Jon Alonso
IDAZLEA ETA
ITZULTZAILEA

Joan den Aberri Egunean nolabait mila bider amestu, baina jada sekula gauzatuko ez zela uste genuen ametsa bete genuen, Gotainen. “Nolabait” idatzi dut, bere jatorrian, gazte ginearik, amets paneuskeriko eta herrikoi honek bestelako ertzak eta pleguak edukiko zituelako, neurri batean bederen, erdi-oroitzen naizenez. Denbora joanaren kontua, besterik ez.

Ametsak mendi tontorrek bezalakoak dira. Norbera, heldu delarik, konturatzen da ia ezer ez dela aurretik irudikatu izan duen bezala. Horrek ez du esan nahi okerragoa denik, bestelakoa dela baizik.

Ametsak amets eta irudimenak irudimen, *Joxe Migel Bidador. Iruñeko euskaldunak* Pastorala eman genuen Aberri Egunez Gotaineko Plazan, ekiaren pean, Bortüko elurra zaindari genuela, Xiru festibalaren 27. edizioa kari. Gogoangarria han aritu ginene denontzat. Zer esanik ez izkiriatazale apal honentzat: emanaldia finitu genuelarik, Jean Louis Davant bizirik den pastoral idazle handienetakoari (Junes Casenave litaike beste bat) agur egiteko plazera eduki bainuen, non eta haren lumak sortutako *Euskaldünak Iraultzan* 23 urte aitzinago eman zen plaza berean, eta geuk ere orduko hartako azken kantua errepikatu genuelarik, gurean.

Nik ez dakit, Mixel Etxekoparek Xiberuko Bortzan erran bezala, *Bidador* Pastorala ahal den izan urteko gertakari inportanteenetako bat, pastoralari dagokionez. Dakidana da hainbat ahots

on, hainbat dantzari trebe eta hainbat musikari abil bildu dituela, Aritz Ibañez eta Ihitz Iriart denen buru, gure adiskide zenari omenaldiaren egiteko, bihotzez, eta geure buruaren eta geure euskalduntasunaren errebindikatzeko, sutzuki.

Jakin badakigu pastorala Zuberokoa eta zuberotarrena dela, eta ez dugu inorekin lehian ari nahi. Badakigu handia izaten dela tradizioarean pisua gure erakustaldietan eta gure kulturaren, eta horrenbestez, gure asmoa gaitzetsiko duenik ere izango dela, ausaz. Baina zinez uste dugu, manex hauek, gure ausardia ez doala inoren kaltetan ez inoren aurka, ez bada pastoralaren beraren alde, *Bidador* maitetasunez eta errespetuz egina den ber. Uste dugu, halaber, zuberotarrek fier izan behar dutela, gainerako euskaldunentzat eredu eta bide den antzerki moldea lantzen, gordetzen eta edertzen jakin dutelako menderik mende.

Eskerrak eman beharrean gara Xiru festibalarri, Ihitz Iriarti eta Mixel Etxekopari, eta gogoratu eta ohoratu nahi dugu Dominika Agergarai zenaren izena, Zuberoan euskaraz, lurrari atxikirik baina aldi berean munduari eta Euskal Herriko gainerako probintziei zabal bizi nahi duen belaunaldi baten aitzindari sumatzen ditugunak.

Zubereraren ele goxoa eta kantariaren ikastea duke gure hurrengo erronka. Bitartean, Biba Pastoral! Biba Zuberoa! Biba Nafarroa! Gora Euskal Herria! ■

Odolaren hiriburua



Joanes Etxebarria
KAZETARIA

Gure hiriburua aipatu dute sekula ez bezala. Nazioarteko hedabideek, frantsesek barne, Maule aipatu dute, eta ohikoa denez, ez luze: krudelkeria, basakeria... Maule odolaren hiriburu bilakatu dute eta joan dira.

Gogoan dut kabala hiltegia berritzea deliberatu zutenean nolako harrotasuna izan zen agintariaren aldetik. Eta uler zitekeen, heriotza erdi-tabu izanik ere, eskualdeko ekonomiarentzat tresna garrantzitsua bilakatuko baitzen. Kooperatibentzat eta laborari txikientzat ezinbesteko tresna baita hiltegia. Bai, bederen, xerriak etxean hiltzea debekatzen duen jendarte batean. Gurea haragi-jaleen kultura baita, ideia hori maita ala ez maita.

Hedabide gehienek hain dute sentsazionalista izan behar, hiltegiaren funtzioa bera ez dutela axaletik ere aipatu. Ekoizpenaren azken kate-begiak ez gaitzala itsutu, laborari txikiek bakarrik bermatzen digute kalitatea (hots, torturatuak izan ez diren kabalen haragia erostea). Gainera, nola ikusiko zituzten haiek hainbeste izerdi eta maitasunez hezi zituzten kabalen sufrikario filmatuak?

Haien lanaren heineko hiltegia da Maulek behar duena. Zuzendariak bi langile kanporatuz ez zuen afera konpondu; haien krudelkeria bezain deigarria baitzen eraginkortasunik gabeko tresneria. ■